

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### LEHENDAKARITZA

## 4189

*EBAZPENA, 2022ko irailaren 19koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez ebazten baita sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa iragarri Lehendakaritzaren idazkari nagusiak 2022ko ekainaren 10ean eman zuen ebazpenaren (ekainaren 21eko EHAA, 119. zk.) hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ibon David Mendibelzua Madariaga izendatzea kanpo-harremanetarako teknikari espezialista Europako Gaietarako Zuzendaritzan; 511291 kodea, 2 dotazioa.

Bigarrena.– Izendapen honek 2022ko irailaren 20an izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bideari bukaera ematen dio. Aurka egiteko, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioko ebazpena eman duen organoari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 19a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,  
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.